


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**PRIM 17**

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1904

Deskribapena

Jatorriz, etxea bastardez eta lau goi oinez osatzen zen. Ondoren, 1944an, horiei bi jasodura erantsi zizkieten. Oin bakoitza mehelin arteko etxebizitza bakarrak hartzen du, bi orientazioz eta zerbitzuko bi barne patioz. Oinaren zabalerak hiru piezatarako aukera ematen du, eta fatxadaren erdiko konposizioa sorrarazten du. Eraikinaren estilo modernista fatxadako zeramikengatik gailentzen da. Ohiko Art Nouveau marrazkiak irudikatzen ditu, lore motiboez. Horrez gain, arkuen marrazkiengatik ere nabarmentzen da. Egiaz, fatxada horietan forma klasizistagoak topa daitezke behealdean. Goiko altueretan, berriz, Art Nouveau dekorazioa indartzen doa, lantze apaleko akaberez eta proflez. Babestu beharreko elementu gisa, eskailera nabarmentzen da.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: bi jasodurak.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua, eta 2., 3. eta 4. oinetako zeramikak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: eskailera nagusia aldaketarik gabe mantenduko da, bere jatorrizko elementuekin.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.